

# MUGARIK GABE

2022ko TXOSTENA



mugarik  
gabe





Garapenerako Lankidetzeta GKEa den Mugarik Gabetik herrien arteko globala eta interdependiente den garapenean sinisten dugu. Gure lana, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belau-naldientzat iraunkorra izango den giza garapen integrala lortu nahian, tokia-tokiko hasten dugu mugetik haratago zabalduz.

#### **ARABA**

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g  
01003 Vitoria-Gasteiz  
945 277 385 – [araba@mugarikgabe.org](mailto:araba@mugarikgabe.org)

#### **BIZKAIA**

Vicente Garamendi auzunea 5, behea  
48006 Bilbao  
94 415 43 07 – [bilbao@mugarikgabe.org](mailto:bilbao@mugarikgabe.org)

#### **GIPUZKOA**

Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea  
20009 Donostia  
943 445 977 – [gipuzkoa@mugarikgabe.org](mailto:gipuzkoa@mugarikgabe.org)

[www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)



Mugarik Gabe



@mugarikgabe



**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionalela (CC BY-NC-ND 4.0)** Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egile-tasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_)

# MUGARIK GABE

2022ko TXOSTENA



# AUKEZPENA 2022

2023ko hilabete batzuk igarota, atzera begiratzen dugu 2022an zer egin genuen azaltzeko. Zein zaila den egindako guztia orrialde gutxi batzuetan laburbiltzea. Gauza batzuk ikusgarriagoak izan dira: kongresuak, hainbat antolakunderekin egindako bilerak, kaleko ekintzak... Beste batzuk ikusezinagoak dira, egunerokoak, eta, agian horregatik, ez ditugu gure memorietan txertatzen. Horiek ere, ezinbestekoak dira.

Jende askoren orduak gure bulegoetakoren baten laguntzen. Pertsona ororentzako mundu bizigarriekin amesteko Euskal Herriko eta Latinoamerikako beste erakunde batzuekin dugun konplizitatea. Lekuz leku korrika garamatzaten agendetan bisitatzen gaituzten eta haien eza-gutzak partekatzen dituztenen lana. Urtez urte Mugarik Gaberen ehunka bazkidek ematen diguten konfiantza. Haien konpromisoa gabe ezin go ginateke izan egun garena. Administrazioaren jarraipena, pazientzia eta ordu asko eskatzen dituen gardentasun-ariketa. Mugarik Gaben lan egin zuten eta arrazoi desberdinengatik beste tokiren batean dauden pertsonen gertutasuna eta konpromisoa: beti daude ekarpenak egiteko prest.

Gure egiturari dagokionez, bereziki eskerrak eman behar dizkiegu gure bi bazkideri: Inma Merinori, batzordeko **lehendakari** izan den urte guztiengatik, eta Saioa Polori, kargua hartzeko izan duen prestutasunagatik.

Ezinbestekoak diren ekintza guztiak aurkezpen honetan zerrendatzea ezinezkoa da... Horregatik, guretzako urte hau markatu duten prozesuak gaineratik azalduko ditugu.

2022. urte honetan jarraipena eman diogu 2021-2026 Plan estrategikoari. Alde batetik, **Eskubide kolektiboak eta bizitza jasagarriak** izeneko lerroarekin, naturaren eta lurraldearen defentsan eskubideen urraketa salatzen jarraitu dugu, Latinoamerikako kideen intzidentzia politikorako gaitasunak indartu ditugu eta bizitza iraunkorreko ereduak eraiki ditugu. Bestetik, **Emakumeen\* eskubideen defentsan** zentratutako gure beste lan-lerro baten bidez, eskubide hauen urraketak salatu dugu, justizia eta erreparazioa exijitu ditugu, Latinoamerikako kide feministen gaitasunak sendotzearen alde lan egin dugu Euskal Herriko mugimendu feministarekin elkarlanean, giza eskubideen defendatzaileen zaintza indartu dugu eta indarkeria matxisten biktimak izan diren

emakumeen memoria eta erreparazio prozesuak eraiki ditugu.

Gainera, 2022ko ekainean egindako asanbladan Mugarik Gaberen **Komunikazio Plana** eta 2022-2025 urteetarako **"¡A pico y pala!"** gure **Berdintasunaren aldeko V. Plana** onartu genituen. Abenduko asanbladan Latinoamerikako bi erakunde berri onartu genituen bazkide gisa: ACIN eta CANICAS.

Ekintza askoren artean, 2022an **Intzidentzia Politiko eta Sozialean** egindako lana bi arlo nagusitan zentratu genuen.

Alde batetik, Koordinadoran egindako lana dago, bereziki 2007ko Legearen ordezkari erakundeek onartu nahi duten **Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Lege berria** sortzeko prozesura bideratu dena. Hala, 2022an aurreproiektuen zirriborroak eta hainbat bilera egin ziren, bai Koordinakundearen barruan eta baita euskal erakundeetan ere, Lankidetzaren Euskal Agentzia buru. Une desberdinetan prozesu honetako talka, ikuspegi eta helburu nagusien berri eman dugu eta, antza denez, 2023 osoan zehar prozesu berean egongo gara oraindik.

Eta, beste aldetik, eraldaketarako hezkuntzaren berezko prozesuei dagokionez, **Bizitza Jokoa** prozesua nabarmendu nahi dugu. Memoria honen atal batean sakonago azaldu dugu, baina, aipatu nahi dugu Intzidentzia Politikoan lan zabala eta sakona egin dela. Era berean, **indarkeria matxisten biktimak izan diren emakumeen erreparazioarako** prozesuen beharra nabarmentzen jarraitu dugu, bai erakundeek eta baita gizarte zibil antolatuek ere bultzatu behar dituztenak. Halaber, **Zaintza-lanen** inguruko intzidentzia lana dago, gure bizitzaren funtsezko parte gisa, ez soilik alde individualagatik, baita eta alde kolektiboagatik ere. Zentzu horretan, zaintzen duten antolakundeak eraikitze aldera, tresnak eta eztabaidak sortu ditugu, eta urte amaierarako mugimendu feministak deitu duen **Greba Feministaren** alde lerratu gara.

Espero dugu memoria hau baliagarria izango dela irakurtzen dutenek Mugarik Gabe hobeto ezagutzeko eta bultzatzen eta egiten ditugun prozesuak ikusarazteko, esan bezala, ikusezinak diren baina berdin garrantzitsuak diren beste prozesu horiek ahaztu gabe.



# HEZKUNTZA

Gizarte Eraldaketaren aldeko apustua egiten dugu sinetsita baikaude pertsonok eskubideen subjektu bihurtuko gaituzten prozesu eraldatzailerak bizi behar ditugula. Eskubide indibidual eta kolektiboen aldeko subjektu politikoak, klima-krisiaren eta eskubideen defendatzaileen kriminalizazioaren arteko lotura estua agerian uzten dutenak, indarkeria matxistarik gabeko bizitza defendatzen dutenak. Eta, horrez gain, eredu ekonomiko eta politiko feministak sustatzen dituztenak, hau da, justizia sozialarekin, ingurumenarekiko jasangarriak direnak eta bizitza erdigunean jartzen dutenak.

Erronka handi bati egin behar diogu aurre: eraldaketa horiek sustatzea, *bizitza sutan jartzen duten su horiek zabaldu behar ditugu, hain tsuak ezen ezin baitzaie so egin kliska egin gabe eta, gerturatzen zaiena piztu egiten da\**. Eta ez gaude bakarrik, Latinoamerikako eta Euskal Herriko antolakunde eta mugimendu aliatuekin batera egiten dugu bidea.

Horretarako, bi lan lerro ditugu: bata bizitza jasangarrien aldeko apustuarekin eta herri indigenen eskubideen defentsarekin lotutakoa eta, bestea, feminismoaren eta emakumeen eskubideen defentsarekin lotutakoa.

## HEZKUNTZA, BIZITZA JASANGARRIAK ETA HERRI INDIGENAK

2022kan zehar **Bizitza Jokoan: Bizitzak, Lurra eta Eskubideak** kanpainari jarraipena eman diogu.

Prozesu honetan nabarmentzekoa da **'BIZITZA JOKOAN: DEFENSA DE LOS DERECHOS HUMANOS Y AMBIENTALES, CRISIS CLIMÁTICA Y COMUNICACIÓN'** (Bizitza jokoan: giza eskubideen eta ingurumenaren eskubideen defentsa, klima-krisia eta komunikazioa) prestakuntza plana, hiru euskal unibertsitateekin elkarlanean egindakoa: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. Horien bidez, hainbat prestakuntza saio eraman ditugu ikasgeletara, esaterako, *"Defender a quien defiende"* (Defendatzailea defendatu), beren bizitza arriskuan jartzearaino giza eskubide indibidual eta kolektiboak eta naturarenak defendatzen dituzten pertsonak eta antolakundeek jasaten duten jazarpen eta kriminalizazio egoera salatzen duena. Kasu askotan, mehatxuak eta jazarpena enpresa transnazionalak eta toki-ko oligarkiek egiten dituzte, eliteen interes eko-

nomikoak babesten dituzten gobernu ustel eta gaizkideen babesarekin.

Baina, formakuntza hauetan gure bizitzeko eta kontsumitzeko moduaren inguruan ere eztaba- datu dugu, baita eskubideak urratzen dituzten enpresen jarduera mugatuko duten aldaketa legegile, politiko eta ekonomikoak kolektiboki eskatzearen inguruan ere. Guztira, zortzi formakuntza egin ditugu, denak Latinoamerikako defendatzaileek lagunduta.

Bestalde, martxoaren 1etik 3ra bitartean **Bizitza Jokoan Nazioarteko Kongresua** antolatu genuen. Bertan, gai garrantzitsuak mahaigaineratu genituen, esaterako, klima-larrialdiaren aurrean jarduteko denbora amaitzen ari dela eta jokoan daudela pertsonen eta herrien BIZITZA, LURRA eta ESKUBIDEAK. Ikuspuntu desberdinetatik heldu genien gai horiei: Giza Eskubideak eta Naturarenak defendatzen dituzten pertsonen eta kolektiboen ahotsetatik, klase politikoak egiten duenaren eta egin beharko lukeenaren ikuspegitik, eta zientziaren, komunikazioaren edo gizarte-aktibismoaren ikuspegietatik.



Horretarako, Kongresua Euskal Herriko eta Latinoamerikako zenbait erakunderekin batera antolatu genuen, hala nola IM-Defensoras - Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos [Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarra], Mugarik Gabeko Ingeniaritza Euskadi, UK'ux B'e elkarte Maya (Guatemala), Zehar Errefuxiatuekin, CEFREC - Fundación para el Desarrollo de la Comunicación Intercultural [Kulturarteko Komunikazioa Garatzeko Fundazioa](Bolivia) eta Deustuko Unibertsitatearen Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Hurrengo orrialdeetan emango dugu Kongresuaren inguruko informazio zehatzagoa.

Kongresu honen emaitzetako bat **Herrirentzako eta Planetarentzako Bizitza Duinaren aldeko Dekalogo**a eztabaidatzea, idaztea eta onartzea izan da. Dokumentu horri esker, atxikimendu-kanpaina zabal egin dugu eta berrogeita hamar kolektibo baino gehiagok bat egin dute. Horien artean daude 81 erakunde barne-biltzen dituen Euskadiko GGKEen Kordinakundea edo Kataluniako Lafede, 125 biltzen dituen.

Hurrengo urratsa Dekalogoaren eragin politiko eta sozialerako lan zorrotza izan zen, alderdi politikoekin (EAJ, EH Bildu, Podemos, PSOE) eta euskal erakundeekin zein Kataluniakoekin, Espainiar estatukoekin eta Europakoekin batera egindako biraren bidez. Horri esker, Europako Parlamentuarekin (Brusela), Diputatuen Kongresuarekin (Madril), Kataluniako Parlamentuarekin, Eusko Legebiltzararekin, Foru Aldundiekin eta hiru euskal hiriburuetako udalekin lan egin ahal izan genuen. Hori guztia, Hondurasko eta Kolonbiako giza eskubideen eta naturaren bi defendatzaileekin batera.

Bizitza Jokoan prozesu beraren barruan, ikerketa sakon bat egin genuen. Horren emaitza da Icaria editorialarekin argitaratutako **'La Vida en Juego. Bizitza Jokoan. Derechos Humanos y de la Naturaleza Violentados'** liburua. Ikerketa horretan, natura mugarik gabe ustiatzen duten hainbat eredu biltzen dira, eragin sozial eta ekologikoa dutenak eta eskubideak urratzen dituztenak (agroindustria, meatzaritza, hidroelektrikoak), Paraguain, Kolonbian, Guatemalan eta Hondurasean, besteak beste.



Era berean, prozesu horren **Komunikazio Kanpainaren** esparruan eta egindako ikerketaren edukiak gizarteratzeko, **aldizkari bat, galdera-joko**

**ko digital bat** eta **erakusketa bat** egin genituen. Erakusketa hori oraindik ere hainbat udalerritan dabil, eta 2023an ere hala izango da. Material horiek guztiek ikerketak aztertzen dituen lau kasuei buruzko datu garrantzitsuak zabaltzen dituzte, eta modu atsegina eta pedagogikoan egiten dute, errealitate horiek publiko zabalarari hurbiltzeko helburuarekin.

**Bizitza Jokoan Erakusketa** Zoiartze Puente artista gaztearekin batera egin genuen. Honek, ikerketaren datuetan inspiratuta, 10 ilustrazio egin zituen arlo artistikotik eta bisualetik komunikatzeko. **Bizkaian** egindako erakusketa Bilboko metroko 7 geltokitan eta 4 udalerritan egon da (Basauri, Portugalete, Sestao, Bilbo), baita Deustuko Unibertsitatearen Bilboko campusean eta Karpin Faunan ere, Karrantzan (Bizkaia) da goen ingurumen-hezkuntza eta faunarena babes zentroa.




Erakusketa horretan galderen **Joko Digitalerako** esteka ageri da. Horrez gain, jokoa unibertsitateko zenbait formakuntzatan erabili da, eta ikasleen artean lehiaketa bat egin da, zeinetan saria Bidezko Merkataritzako bonu bat izan den.

**Araban** Bizitza Jokoan kanpaina lau udalerrira iritsi da: Trebiñura, Kanpezura, Bernedora eta Lantarонера. Leku horietara totem formatu berri batean eraman genuen erakusketa eta joko digitalerako sarbidea duen QR kode baten bidez bidezko merkataritzako saski baten zozketan parte hartzeko aukera eskaini genuen. 255 pertsona inguruk parte hartu zuten, eta horietatik 217 emakumeak izan ziren.

Udalerrri bakoitzean 15 egunez egon ziren erakusketak eta, horien baruan, bisita gidatu bat egin



genuen. Dalila Argueta-ren (lurraren eta lurraldearen defendatzaile hodurastarra) hitzaldiarekin amaitu genuen, non lurraren eta lurraldearen defentsaren ondorioak eta ikerketaren sozializazioa azaldu zituen: *Trantsizio Energetikoak, landa-subiranotasuna eta gizarte- eta ingurumen-justizia: Euskal Herriaren eta Latinoamerikaren arteko elkarrizketak*. Tandem honekin agerian utzi genuen eredu neoliberalak lurralde guztietan eragiten duela, naturaren eta haren defendatzaileen eskubideak urratzen dituela, bai Araban, bai munduko beste leku batzuetan.



**Gipuzkoan**, bestalde, Bizitza Jokoan kanpainaren une garrantzitsuena **'La Vida en Juego... ¿es crisis climática o civilizatoria?'** izeneko EHUren udako ikastaroa izan zen. Bertan, galdera horri erantzuten saiatu ginen, zientzia-adituen, komunikatzaileen eta hainbat gizarte-erakundetako ordezkarien parte-hartzearekin. Parte-hartze nabarmenarekin ekin zitzaion krisi energetiko globalari, krisi klimatikoaren ondoriozko migrazio eta desplazamenduei eta giza eskubideen urraketari, eta kontsumo arduratsuen eta komuni-

kazio eta fikzio klimatikoaren ikuspegitik alternatibak landu ziren taldean.



Azkenik, kanpaina honi dagokionez, aipatzekoa da **'Berrito jaio' komikia** ere argitaratu genuela. Zientzia-fikziozko komikia da, klimaren ingurukoa eta gako proposatzailean sortua. Elizabeth Casillasekin eta Josune Urrutiarekin elkarlanean egin genuen. Material hori, **Aldizkariarekin** batera, unibertsitateko ikasleei banatu genien egin-dako formakuntzetan, baita Kongresura bertaratu zirenei ere, material pedagogiko gisa. Gainera, Alborde Films ekoiztetxearekin batera, **Bizitza Jokoan kanpaina aurkezteko sormen-bideo bat** ere egin genuen. Antolatutako ekintzetan proiektatu genuen eta webgunearen zein sare sozialen bidez asko zabaldu zen.

Laburbildiz, esan dezakegu Bizitza Jokoan kanpainak **eragin sozial eta politiko handia izan duela, komunikabideen sektorea barne hartuta**. Mugarik Gabek egindako zortzi iritzi-artikulu argitaratu dira hainbat hedabidetan: Noticias Taldea, Naiz-Gara, Eldiario.es, El Salto, Prensa Comunitaria (Kolombia) eta APC Bolivia. Gainera, 15 elkarrizketa egin dizkigute intzidentzia- eta komunikazio-kanpainaren esparruan. Azkenik, aipatu beharra dago argitalpen ugari egin ditugula gure webguneetan eta sare sozialetan, baita erakunde aliatuen sareetan ere, eta modu horretan landutako edukien hedapena biderkatu dugu.

## BESTE JARDUERA ETA PROZESU BATZUK

2022an Bizitza Jasangarriak deritzogunarekin zerikusia duten proposamen guztiei zabalpena ematen jarraitu genuen. Donostian **'Políticas Públicas para un Desarrollo Humano Sostenible'** izeneko formakuntza garatu genuen, hiriko Udaleko teknikariei eta politikariei zuzendutakoa. Mugarik Gabek antolatu zuen gune hori, Lankidetza Kontseiluaren Politiken Koherentzia taldearen eskutik eta Lankidetza arloaren laguntzarekin. Zenbait sail eta ataletako langileek (Ingurumena, Mugikortasuna, Kultura Aniztasuna, Lehendakaritza, Langileak, Hezkuntza, Giza Eskubideak edo Gazteria) XXX kolektiboarekin batera, udal-eskumenetatik bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jarriko duen hiri baten alde aurrera egin ahal izateko erronkak, politikak eta praktikak jorratu zituzten.

Bizi dugun krisi ugaridun testuinguru honetan gizarte eta udalerrri bidezkoago eta iraunkorra-goetara igarotzeko gure aletxoak jartzen saiatzeko lanean, **Eskubideei eta Alternatibei buruzko Zinema Zikloa antolatu genuen Eibarren**, Egoaizia eta Bakea eta Elkartasuna Euskadirekin batera.

Mugarik Gaben 'Alternatibak Plazara!' dokumentala egin genuen, hain justu ere, herri horretako Kontsumo Arduratsuaren Azokaren programazioaren barruko ziklo baten barruan.

Bestalde, Araban, **Zentzuz Kontsumitu** proiektu eta prozesuan jarraitzen dugu lanean. Bertan, Medicus Mundi Arabak, Bide Bideanek, Setem Hego-Haizeak eta Mugarik Gabek hartu genuen parte. Bidezko Merkataritzaren eguna ospatu genuen apirilean, kontsumo kontziente eta arduratsuko postuekin merkatu batekin eta txiki-nentzako sentsibilizazio antzerki batekin. Ibilbide antzeztuak ere antolatu genituen, Zaramaga auzoan ekonomia sozial eta solidarioan oinarrituta-

ko eredua bultzatzen ari diren saltokiak ikusarazteko.

Beti bezala, hainbat Bizan-etan (Gasteizko Adinekoentzako Zentro Soziokulturalak) ikastaroak egin ditugu bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua zer den azaltzeko. Gure hirian irizpide horiek jarraitzen dituzten saltokiekin dugun APPa zabaldu dugu.

Bidezko merkataritzaren aldeko hirien talde eragilearekin egin dugu lan, eta 'Ideas' ekimenaren akreditazioa eskuratu dugu. Esperientzia honen baitan, Leongo taldearekin trukea egin dugu, eta horri esker bidezko merkataritza herritarrei hurbiltzeko ideia berritzaileak ikasi eta berreskuratu ditugu.

Amaitzeko, 5 hitzaldi egin genituen hiriko Bizan desberdinetan zaintzen atzean dagoena hizpide hartuta. Horietan, 'Zaintzaile migratuak, gure Iparraldeko Hegoaldea' ikerketa sozializatu genuen. Kanpaina bat ere egin genuen lankidetzako eta gizarte-politiketako zerbitzuarekin batera, emakume migratuek zaintza lanetan duten zeregina ikusarazteko eta duintzeko. Kanpainaren leloa honakoa izan zen: 'Zaintzaileok! Bizitzari eusten diogu. Profesionalak gara. Zaintzaren kate globalaren parte gara'.

## HEZKUNTZA FEMINISMOAK

### ZAINTZA LANAK ETA ARDURA FALTA GURE ANTOLAKUNDEETAN

Prozesu honekin zaintza lanen egoeraren inguruko eztabaidari ekarpena egin nahi izan diogu, bai ikuspegi indibidualetik (nola zaintzen dugu elkar?), eta baita antolaketa-ikuspegitik ere (zer leku hartzen dute zaintza lanek gure elkarteetan?). Hori dena Ikusezinean Bidaiatzen prozesuari jarraipena emanez.





Zaintza lanen genero analisi feminista baten alde egiten dugu, hobeto ulertzeko zergatik hartu izan diren emakumeen erantzukizun gisa, zer dela eta ikusezin bihurtzen diren hainbat espazio sozial eta politikotan edo zergatik ez diren aintzat hartzen, beste hainbat analisiren artean. Zaintza lan horiek ez dira isolatuak, gure antolakundee-tan beharrezkoa den antolakundeko aldaketa feministarekin lotuta daude.

Prozesu honetarako, 2022an zenbait hitzaldi eta ikastaro bultzatu ditugu Gasteizen, Laudion, Trebiñun, Burgelun eta Kanpezun, eta gai hau jorratu den zenbait espaziotan hartu dugu parte, GGKEen Koordinakundeak edo Hika Ateneoak antolatutakoak.


Horrez gain, Bilbon esperientzien hartu-eman bat antolatu genuen L'Esberla-rekin eta Calala-rekin batera, Mujeres que Crean-ekin ikasitakoa kontuan hartuta. Gune horretan, **zaintzen botika-kutxa**ren aurkezpen publikoa egin genuen, gure antolakundeetan ikuspegi feministadun zaintza sustatzeko tresnaz eta proposamen metodologikoz osatutako material berri bat. Material guztiak eta prozesuaren sistematizazioa eskuragarri daude Ikusezinean Bidaiatzen webguneko (<https://viajandoporloinvisible.mugarikgabe.org/>) 'Elkar zaintzen' atalean.

Antolakundeko aldaketa feminista sustatzeko helburu honekin, urteko bigarren hiruhilabeteen **'Lan-politika feminista'** prozesua jarri genuen martxan, Setem-ekin eta REAS Euskadirekin batera eta XXK-k lagunduta. Prozesuaren helburuen artean, Gizarte Ekonomia Solidario eta Eraldatzaila lantzen duten antolakundeen artean lan-politiken inguruan ikuspegi feministatik hausnartzeko espazio bat sortzea zegoen. Horretaz gain, erakundeek lan-politika horien fase eta une desberdinetarako eraiki dituzten esperientziak eta tresnak

partekatu nahi genituen, hau da, harrera/sarrera-rako, garapenerako eta irteerarako. Parte-hartzaile guztien balorazio ona kontuan hartuta eta sakontzen jarraitzeko gogoia ikusita, prozesuaren sistematizazioarekin jarraituko dugu aurtengo ere.

Ildo horretan, Berantevillan eta Añanako Kuadrillan soldata-arrakalan, kontziliazioan eta denboraren erabilera berrietan sakontzeko espazioetan ere hartu dugu parte.

## INDARKERIA MATXISTAK



**KORAPILATUAK:** Indarkeria matxistatik biziraun duten elkarleen narratibak indarkeria matxistatik bizirik atera diren zazpi emakume talderen dokumentazio prozesuaren emaitza da, hiru ildoren inguruan: isiltasunarekin amaitzea eta sendatzea, emakumeen ahotsetik memoria berreskuratzea, eta justizia egitea.

Talde-elkarriketen bidez, kideen subjektibotasunetatik abiatuta, bizirik atera diren erakundeekin kontakizunak dokumentatu dira, kolektiboan parte diren eta laguntzen dituzten emakumeen ahalduak indibidualean eta kolektiboan egingarriak izan daitezkeenak eta aitortzeko. Indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeek, beste behin ere, kolektiboek beren bizitzetan izan du-



ten garrantzia azpimarratu dute. Hauek dira elkartek:

Euskal Herria: Bizitu, Goizargieta, Deba Garaiko Guerreras

Espainiako estatua: Genero indarkeriaren emakume erresilienteen estatuko kontseilua

El Salvador: Renacer eta San Jacinto auzoko Mujeres Salvadoreñas en Accion elkartea

Guatemala: Actoras de Cambio

Kolonia: Mujeres Tejedoras de Derechos elkartea (eskubideak ehuntzen dituzten emakumeak).

Argitalpenaz gain, euskal erakundeek kontakizunak zabaltzeko podcast batzuk egin genituen.

Indarkeria matxistaren biktimak izan diren emakumeen Egitarako, Justiziarako eta Erreparaziorako eskubidea aldarrikatzen jarraitzeko apustuari eutsita eta gizarte zibil antolatuak zein erakundeek aurrera eramaten dituzten prozesuei laguntzeko, urrian hitzaldi bat antolatu genuen: **INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA IZAN DIREN ETA BIZIRAUN DUTEN EMAKUMEEN ME-**

**MORIA ETA ERREPARAZIOA.** Zenbait hizlari garrantzitsu izan genituen: Araceli Osorio (Mexiko), 2017an feminizidio baten biktima izan zen Lesvy Osorioren ama, eta Elsa Rabanales (Guatemala) Huehuetenango Actoras de Cambio elkarteak kidea. Haien borrokei eta gogoetei esker, aurrera egiten jarraitzen dugu indarkeria desberdinen biktima izan diren emakumeek erreparazioa jasotzeko duten eskubidearen kontzeptualizazioan eta praktikan.

Euren bisitan zehar, bestelako ekintzak ere antolatu genituen: Gasteizko herritarrei zuzendutako hitzaldiak, Emakundeko langileei zuzendutako prestakuntza, beste erakunde batzuekin topaketak eta alderdi politikoekin intzidentzia-bilerak, esaterako.



**‘Indarkeria matxisten biktimen memoria eta erreparazioari buruzko ahotsak’** izeneko **bi-deo bat** ekoitzi genuen, hainbat ekarpen eta esperientziatik abiatuta gure memoria kolektibo osatuko duten narratibak osatzeko beharrari heltzeko. Urrats garrantzitsua da indarkeria mota hauek jasan dituzten emakumeen erreparazioa gauzatzeko. Urte amaieran hainbat lekutara gonbidatu gintuzten eta horrek zabaltzeko eta hainbat pertsonarekin hitz egiteko aukera eman zigun.





Azaroan gure bi bazkideren bisita izan genuen: Mujeres que Crean elkarteko Angelica Naranjorena (Kolonbia) eta Fabiola Melendezena, La Colectivak El Salvadorren antolatzen dituen guneetan parte hartzen duen unibertsitateko ikaslea. Aste-betez, hainbat tokitako beste bost emakumerekin zenbait gune partekatu genituen, **Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren esparruan dituen proposamenak** ezagutzeko. Oso aste interesgarria izan zen. Parte hartzaileek ekimen instituzionalak ezagutzeaz gain, topagunea izan zen haientzako, haien estrategientzako eta hiriko kolektiboentzako.



Gonbidatuek Gasteizko Udalak proposatutako hainbat jardueratan hartu zuten parte, eta harre-ra instituzional batekin hasi zuten astea.

Era berean, maiatzean Basauriko Marienean egin genuen **mahainguruan (Gerrari eta bakeari buruzko ikuspegi feministak)** Olga Rodriguezekin, Ane Irazabalekin eta Marina Gallegorekin hitz egiteko aukera izan genuen.



## BESTE JARDUERA ETA PROZESU BATZUK

Hezkuntza formalean egindako aholkularitzei dagokienez, Fadura LHIIren Berdintasunerako I. Planaren balorazioa egin dugu eta II. Plana sortu, lehenaren ondorioetan oinarrituta. Repelegako LHIIIn hezkidetzari buruzko egoeraren diagnostikoa egiteko prozesu parte-hartzailea ere bultzatu dugu, eta I. Berdintasun Plana ixteko bidean aurrera egiten ari gara.

Bestalde, hainbat mahaitan parte hartu dugu, eta hainbat hitzaldi eman ditugu. Partekatutako edukiez gain, beste zenbait gai ere jorratu ditugu: pobrezia feminizazioa, nola txertatu ikuspegi feminista esparru logikoaren ikuspegian, sexu-eta genero-aniztasunarekin lotutako analisiak, eta memoriari, egitari eta erreparazioari buruzko analisi espezifikoak. *Martxan: indarkeria matxistaren aurrean feministak martxan* dokumentalaren bideo-foruma ere dinamizatu dugu hainbat udalerritan.

Maiatzean, Javiera Cubillos izan genuen, Txiletik **intersektionalitateari** buruzko prestakuntza eman zuena MGren batzarrean. Kontzeptu hura hobeto ulertzeko eta sakontzeko aukera izan zen, baita apustuekin eta MGren lan-ereduarekin lotutako potentziala ulertzeko eta sakontzeko ere.

2022ko ekainean, *A pico y pala!* batzarrean, 2022tik 2025era bitarteko **Berdintasunaren aldedeko V. Plana** onartu genuen. Aurreko planak bezala, modu parte-hartzailean eraiki genuen urteko lehen sei hileko osoan, jakinda prozesu horien izaera parte-hartzailea funtsezkoa dela horiek bereganatzeko eta gerora erabiltzeko.



# BIZITZA JOKOAN KONGRESUA



2022ko martxoaren 1etik 3ra **Bizitza Jokoan Nazioarteko Kongresua** egin genuen Bilboko EHU-ren paraninfoan.

**#BizitzaJokoan** kanpainaren esparruan oro har eta Kongresu honetan bereziki, gai honi heldu nahi izan diogu: krisi klimatikoa eta honi aurre egiteko premia denon ahotan dagoen honetan, harrigarria dirudi oraindik ere Lurra, bere eskubideak eta bertan bizi garen pertsona eta izaki guztienak defendatzen dituztenek beren bizitza arriskuan jarri behar izatea.

Hau da, Bizitza jokoan, bizitza bera defendatzea-gatik.

Aski ezaguna da Berta Cáceresen kasua, 2016an erail zuten Hondurasko aktibista. Hala ere, mundu osoan etengabeak dira eskubideak eta Natura defendatzen dituzten eta krisi klimatikoari aurre egiten dioten pertsonen, bozeramaileen edo liderren aurkako mehatxuak, jazarpena eta indarkeria. Horren atzean zein eragile dauden eta zein

interes eta botereren ondorio diren jakitea funtsezkoa da ekin ahal izateko.

Azken finean, hainbat erakundek adierazten duten bezala, Larrialdi Klimatikoari aurre egiteko denbora agortzen ari da eta jokoan daude pertsonen BIZITZA, LURRA eta ESKUBIDEAK. Ondorioz, inoiz baino beharrezkoagoa da bizitza defendatzen dutenak babestea. Hori nola egin izan zen Kongresuaren beste zutabe nagusietako bat. Hainbat ardatzetatik landu genuen: politikatik, kazetaritza, aktibismo sozialetik, ingurumen-aktibismotik, zientziatik eta zuzenbidetik.

**Martxoaren 1eko arratsaldean**, Eusko Jaurlari-tzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Mugarik Gabek ekitaldia inauguratu ostean, Madrilgo Defensor del Pueblo bulegoko Patricia Bárcenak eta Tarcila Rivera Zea aktibista kitxua ezagunak eman zioten hasiera kongresuari. Bi emakume hauek defendatzaileak defendatzearen premian jarri zuten fokua.

**Martxoaren 2an**, goizean, euskal alderdi politiko nagusietako ordezkariak (EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Podemos eta PP) krisi klimatikoaren eta giza eskubideen urraketen inguruan duten ikuspuntua eta proposamenak aurkeztu zituzten, gure herriko ikuspegiarekin. Odoren, Espainiako estatuko eta Latinoamerikako kasu zehatzak eza-gutzeko unea heldu zen, besteak beste honako gaiei buruzkoak: Hondurasen eskubideak defendatzen dituzten emakumeen aurkako indarkeria, Kantabriako montes de Pas-en ezarritako zentral eoliko eta energia berriztagarrien eredua, edo Kolonbiako eta Extremadurako ikatz- eta litio-meatzaritza.

**Azkenik, martxoaren 3ko goizean**, hainbat komunikabidetako kazetariak hitz egin zuten komunikazio masiboak, alternatibek eta sare sozialek krisien aurrean duten paperaz. Xabier Madariagak dinamizatu zuen mahai hura eta Jonathan Martinez aktibista eta kazetariak, Quim de León Guatemalako Prensa Comunitariako kazetariak eta Sandra Vicente ikertzailea eta freelance kazetariak hartu zuten parte.

Amaitzeko, Unai Pascual Ikerbasqueko ikertzaileak eta Maria Teresa Vicente Murtziako Unibertsitateko irakasleak alternatibak eta proposamenak aurkeztu zituzten Zientziaren eta Zuzenbidearen ikuspegitik, hurrenez hurren.

Kongresu hau Mugarik Gabek antolatu zuen arren, honako hauen lankidetzaz estua izan genuen:

- **IM-Defensoras** - Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de DDHH
- **ISF** - Mugarik Gabeko Ingeniaritza Euskadi
- **UK'UX B'E** Elkartea Maya (Guatemala)
- **ZE HAR** - Errefuxiatuekin
- **CEFREC** - Fundación para el Desarrollo de la Comunicación Intercultural (Bolivia)
- Deustuko Unibertsitateko **Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua**
- **ODAL** - Observatorio de Derechos de América Latina





# KOOPERAZIOA

Elkartasuna zentzu sendoan ulertzen dugu, beste pertsona, gizarte-sektore edo herri batzuek bezala ongizate indibidual eta kolektiboa (edo biziera ona) defendatzeagatik ditugun elkarrekin loturak ezagutu eta ikusarazten laguntzen diguna bezala. Horregatik egiten dugu lankidetzaren modu honetan; eta Latinoamerikako antolakunde bazkideek egiten duten lana artikulatuz eta lagunduz egiten dugu.



2022an zehar, El Salvadorren, Nikaraguan eta Kolonbian gure bazkide feministei eta emakumeei lagundu diegu indarkeria matxistarik gabeko bizitza izateko eskubidea gauzatzen, intzidentzia sozial eta politikoko prozesuen bidez, sare-lanaren bidez eta autonomia ideologikoa eta segurtasun pertsonala indartuz. Giza eskubideen defendatzaileen kriminalizazioa larriagotu den honetan, bereziki garrantzitsua izan da babes integral feministako mekanismoak eta praktika osasungarri eta zainduak garatzen laguntzea.

Era berean, Guatemala, Kolonbia eta Boliviako kide diren erakunde indigenei eskubide kolektiboen eta naturaren defentsan lagundu diegu, sareak antolatuz eta emakumeen parte-hartze politikoan arreta berezia jarri eragin politikorako gaitasunak sendotuz. Eredu propio eta alternatiboak eraikitze prozesuak laguntzearekin batera, komunikazio-sistema propioak, ekonomia feminista eta iraunkorreko ekimenak edo estatu plurinazionalen eraikitzea lagundu ditugu.

## BOLIVIA

### CEFREC ETA CAIB

Bolivia 2021eko urtarrilean atera zen 2019ko azaroko estatu-kolpearekin hasitako etapa ilunetik. Hortaz, 2021. eta 2022. urteetan kolpearen aurreko etapan lortutako aurrerapen sozial, politiko eta ekonomikoak berreskuratzen zentratu ziren, gobernu kolpistak neurri handi batean kendu zituenak. Aurrerapen horietako asko politika neoliberalak berriro ezartzearen ondorioz galdu ziren (sektore ekonomiko estrategikoen pribatizazioak, eremu sozialak bertan behera uztea), oraingoan beste faktore batzuek areagotuta, hala nola ustelkeriak eta COVIDaren pandemiak.

Aldi berean, CEFREC (Zinematografiako Prestakuntza eta Errealizaziorako Zentroa) eta CAIB (Boliviako Indigenen Ikus-entzunezkoen Kontseilua) erakundeek aurrera daramaten eta Mugarik Gabek lehen urratsetatik babesten duen Indigenen eta Emakumeen Komunikazio Sistema Plurinazionalak ere sistema hori berreskuratzea eta berrindartzea izan zuen helburu. Kolpismoak komunikazio alternatiboari egindako erasoek, neurri handi batean, klandestinitatera pasatu beharra edo prozesuaren zati garrantzitsu bat geldiarazi beharra ekarri zuen, eta hori ezin da hilabete gutxi batzuetan berreskuratu, nahiz eta aurrerapenak oso garrantzitsuak izan.

Horrela, 2022. urteak sendotze hori eta komunikazio-autonomia eraikitze indar berriak ekarri ditu. Eremu horretatik, Amazonian emakume in-



digenen eta nekazarien ahalduntze-prozesuetan eta indarkeria matxisten salaketan lan egin ahal izan zen. Era berean, estatu plurinazionalaren eraikuntzan lan egin zen, eskubideen intzidentzian, proposamenetan eta indarraldian eraginez eta, bereziki azpimarratuz eraikuntza horren protagonistak sektore indigenak, jatorrizkoak, nekazariak eta emakumeak direla. Halaber, lehen urratsak eman ziren klima-aldaketari buruzko kontzientzia indartzeko ikus-entzunezko komunikazioan eta komunikazio erradialean, eta krisi horri aurre egin diezaioketen estrategia propio eta egokien premiazko definizioan, bai gizarte-eta herri-sektoreetatik, bai estatuko erakundetatik bertatik.



## GUATEMALA

Huts egindako estatu-eraikuntzak, Guatemalan, duela zenbait urtetik hona okerrera egiten jarraitu du justizia-sistemaren kolaborazioarekin. Horrek, inbertsio-publikoaren ustelkeria areagotu du, enpresa transnazionalen ondasun naturalak gero eta gehiago suntsitu dituzte, eta giza eskubideen defendatzaileen eta gizarte-erakundeen aurkako kriminalizazioa handitu da.

Alejandro Giammateiren gobernuak ustelen itunarekin jarraitzen du, eta horrek orokorrean ko-

munitateak pobretzen ditu eta bereziki komunitate indigenak. Pandemiaren geroztik, milioitik gorako maileguak egin zituen eta zor horren guztiaren onuradun bakarrak enpresa handiak, militarrek eta ustelen ituna osatzen duten estatuko langileak izan dira: diputatuak, gobernadoreak, enpresa farmazeutikoak, pazienteei dirutza kobratzen dioten osasun-etxeak... Horrenbestez, gobernuak krisiak aprobetxatu ditu aberasteko.

Pandemiaren eta gerraren ondorioz erregaiak, oinarritzko produktuen saskia eta ongarriak garestitu dira eta horrek pobrezia eta segurtasun eza handitu ditu herritarren artean. Gainera, Gobernua politika erregresiboa eta errepresioa bultzatzen ari da, herri indigenen, emakumeen eta gazteen aldarrikapenak kriminalizatzen dituen.

## ASECSA

Errealitate horrekin, ASECSAk, osasun zerbitzu komunitarioen elkartek (gaztelaniazko siglekin, Asociación de Servicios Comunitarios de Salud), koiunturari aurre egiten laguntzen du, batez ere beren lurraldeak defendatzeko borrokan ari diren antolakunde komunalei prestakuntza politikoa emanez, intzidentzia politikoko ekintzak lagunduz, emakumeak ahaldunduz eta beren artikulazioa erraztuz, eta defendatzaileak pairatzen dituzten mehatxu eta eskubide urraketatik babestuz.

Prestakuntzetan elementu kontzeptualak eta jarraibide politiko metodologikoak lantzen dira, beren borroka-estrategiak sendotuko dituen pentsamendu kritiko eta emantzipatzailea sortzeko.

Agintari komunitario eta indigenek gidatutako diagnostikoak eta lurralde planak egin dira, lurraldea defendatzen duten sare eta antolakunde komunitarioek dituzten mehatxuak eta zaurgarritasunak aztertzeko. Tresna horiek lurraldearen defentsa bideratzen dute dagoeneko antolatuta dauden espazioekin komunitateetako kideen artean autodeterminazioa, elkarrizketa eta komunikazioa sustatzera eta konponbideak eraikitzen.

Bestalde, aurten ASECSAk 22-26 plan estrategikoa berritu zuen. Prozesu horretan bost eskualdeek hartu zuten parte. Gainera, generoari eta osasunari buruzko adierazpen politikoa onartu zuten.



## ALIANZA POLÍTICA SECTOR DE MUJERES - APSM: EMAKUMEEN ALIANTZA POLITIKOA



Aurten APSMk antolatutako emakume Mayekin eta Xinkekin lan egiten jarraitu du eskubide indibidual eta kolektiboak indartzeko biziera onaren proposamenetik abiatuta.

Emakume mayen eta xinken espazioan komunikazio eta sentsibilizazio estrategia plan bat landu da Red de la Vida delakoaren inguruan (euskaraz, bizi-sarea) eta emakumeen ekonomiari egiten dioten ekarpena aitortzeko.

Bizi-sarearen eta Biziera Onerako Eskubide Kolektiboen kanpainarekin iragarki erradialak zabaldu dira FGERen eta beste irratik batzuetan, Voces de Mujeres eta La Cuerda, esaterako. Gainera, sareetara igo dira Lurraldeen Defentsaren eta Biziera Onaren inguruko hainbat albiste eta proposamen, bai eta enpresa transnazionalen lurraldeetan duten eraginaren salaketa ere.

Honek eragin du emakume mayen eta xinken espazioak APSMren barruko lidergotza hartu izana, eta bi ordezkari sortu dira Gidatze Politikoko Taldean. Halaber, horrek lurralde- eta komunitate-antolakuntza indartu du eta, horrek, era berean, antolakundeetako emakume gazteen gaitasuna handitu du jatorrizko herrietako emakume gazte gisa.

Azaroan Erdialdeko Amerikako kongresu feminista egin zen, eta APSMk antolaketan hartu zuen parte. El Salvadorreko, Nikaraguako, Costa

Ricako, Guatemalako eta Honduraseko 500 emakumetik gora elkartu ziren. Ekitaldi handia izan zen, AbyAyala erdigunea gobernatzen duten estatutik diktatorialen ondorioz emakumeek pairatzen dituzten zapalkuntza ezberdinen inguruan hausnartzen lagundu zuena.

## UKUXBE

Errealitate horretatik abiatuta, UKUX' B'E-k borroka molde desberdinak eskaintzen dizkie komunitateei, batez ere formakuntza prozesuak baliatuta, aldaketa-proposamenetarako oinarria baitira.

Urte honetan zehar, hainbat analisi-zirkulu egin dituzte, emakume gazte indigenen parte-hartze aktiboarekin, komunikatzaile komunitario gisa dituzten gaitasun teknikoak eta politikoak indartzeko. Horien ardura izango da beren lurraldeko errealitateak ezagutaraztea, informazioa desitxuratu gabe. Prozesu honetan Peten, Alta Verapaz, Santa Cruz del Quiché, San Pedro Yepocapa, San Pedro Sacatepéquez eta Chimaltenango udalerrietatik etorritako emakumeek hartu dute parte.

Erakundeen mailan, uspanteko herrien kontseilua, Kiché Herrien Kontseilua, Chilam B 'Alam eta Resistencia Cunen ere aktiboki ari dira parte hartzen prestakuntza-prozesu horretan eta, horri esker, beren parte-hartzea indartzen dute, bai eta beren erakundeari eta komunitateari ezagutzak eta jakintzak errepikatzen ere.

Gainera, familia kriminalizatuek eta lurraldearen defentsan egindako lanagatik preso dauden pertsonen laguntza psikosoziala eta juridikoa jasotzen jarraitu dute.



## KOLONBIA

2022an Kolonbiako testuinguruan gertatu den gauzarik eta aipagarriena 2022-2026 eperako gobernu berri baten hasiera izan da, Gustavo Petro lehendakariarekin eta Francia Márquez lehendakariordearekin. Biak dira ezkerreko eta zentro-ezkerreko alderdi eta mugimenduek osatutako koalizio politiko baten ordezkariak. Hala ere, eta nahiz eta herri indigenen, afrikar ondorengoen eta nekazarien aurkako bidegabekeria historikoak gainditzeko bidea marrazteko aukerak handitu, indarkeria, batez ere guk lan egiten dugun Caucako lurraldeetan, handitu egin da. Ohikoagoak dira umeen bahiketak eta talde armatuek nekazarien, afroen eta indigenen komunitateetako liderrak beldurrazten eta hiltzen jarraitzen dute. Identitate politiko zehatzik gabe, diru bila jarduten dute eta familiak legez kontrako laborantzetara behartzen dituzte, onurak haiek kontrolatzen dituzten bitartean.

Bestalde, berdintasun arloan lege-aurrerapenak egon arren, horiek ez dira oraindik konpentsatzen genero arrazoiengatik diskriminazioa eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriak desagerrarazten lagunduko duten ekintza sozial, ekonomiko eta politikoen eskakizunekin. Emakumeek sarbiderako, iraunkortasunerako eta garapenerako baldintza egokiak izatearen aurkako oztopoek hor jarraitzen dute eta genero arrakalak ez dira txikitzen. Arau-esparrua eta Garapen Plan Nazionala gorabehera, ez da bete emakumeen ekitatearen aldeko ituna.



Azkenik, egungo gobernuaren bi planteamendu garrantzitsuenak azpimarratu behar dira: erabateko bakea lortzea eta Kolonbia bizitzaren munduko potentzia bihurtzea.

## CORPORACIÓN MUJERES QUE CREAN

'Siempre vivas por un activismo saludable' (beti bizirik aktibismo osasungarri baten alde) prozesua bultzatzen jarraitu dugu. Kolonbiako liderrek beren erakundeen lan-moduak eta harremanak aztertzen dituzte, beren antolaketa- eta lan-inguruneetan zaintza-ekintzak bultzatzeko. Mugarik Gabek 'Ikusezinean Bidaiatzen' eraldaketa feministarako antolakundeko aldaketako prozesuan duen esperientziatik, jarraitzen du CMQCren proiektuko taldeari aholkularitza kontzeptualak eta metodologikoak ematen, horiek prozesuan parte hartzen duten erakundeak lagundu ditzaten.

Era berean, CMQCko Angélica Naranjok zaintza-lanen inguruko esperientzia praktiko eta teorikoak trukatzeko Mugarik Gabek antolatutako jardunaldi batean hartu zuen parte, baita 'Cuidándome, Cuidándonos en las organizaciones y colectivos desde el feminismo' (Elkar Zaintzen. Feminismotik antolakundeetan eta kolekti-boetan elkar zaintzen) ikastaroan ere.

Medellin hirian indarkeriak prebenitzeko Emakumeen Agora Birtualaren ezarpenaren bigarren urtea da eta prozesu horrekin unibertsitateko ikasle, irakasle eta funtzionario publikoetan eragiten da. Ingurune sozial eta digitaletan indarkeria matxistak aitortzeari buruzko prestakuntza egin





da, bai eta sexu-orientazio anitza duten herritarrek pairatzen dutenaren inguruan ere. Prozesu horrek oinarri kontzeptual eta metodologikoak ezarri zituen indarkerien inguruko sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzak garatzeko, emakumeen gorputza merkantilizatzen duten iruditeriak eta irudikapenak eraldatzeko.



‘Bioleta ahaldundu egiten da eta sareetan ez da korapilatzen’ proiektua 2022an hasi zen. Horren bidez, genero-berdintasuna eta indarkeriarik gabeko bizitza izateko eta informazio- eta komunikazio-teknologietan bakerako eskubidea sustatu ziren. Proposamena prestakuntza-ekintzetan gauzatu zen (Ziberzaintza), bai eta ikasleen, irakasleen eta Medellingo Hezkuntza Erakundeetako zuzendarien artibismo feminista eta komunikazio-ekintzetan ere. Era berean, WEBINAR bat garatu zen, Kolonbiatik eta Basauritik hezkuntza-inguruneetan indarkeria digitalen prebentzioko esperientziak partekatzeko gune gisa.



‘Confluencia por el derecho a una vida libre de violencias para las mujeres y las niñas’ proiektua (Emakume eta neskentzat indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidearen aldeko bateratzea) hasi zen. Prozesu horren helburua da Medellingo, Barbosako eta Girardotako agintari publikoen eta gizarte zibilaren artean elkarrizketarako espazio publikoak sortzea, udalerrri bakoitzean indarkeria matxisten biktimen egia, justizia, erreparazioa eta oroimena berreskuratzen lagunduko duten proposamenak egiteko.

## CAUCAKO INDIGENEN ESKUALDE KONTSEILUA

Caucako Herri Indigenek Bizitzaren eta Ama Lurraren Defentsan dituzten gaitasunak indartzeko prozesuan, bereziki emakume indigenen parte-hartze politikoan eta babestu eta defendatu beharreko lehen lurraldeko kidego-lurraldearen zaintzan, beste erakunde batzuek guardia-prozesuak sendotzea lortu da. Hori da guardia zimarroaren, nekazarien guardiaren eta hiri guardiaren kasua. Emakumeen guardia sendotzeko asmoa ere badu, emakumeak eta, oro har, erakundea eta komunitatea babesteko desirarekin.

Lurralde-ibilbideak egin dira lurraldearen eta komunitateen egoerak identifikatzeko, giza eskubideen egoera aztertzeko, guardiari eragiten dioten arriskuak eta mehatxuak ezagutzeko, eta lurraldearen eta erakunde osoaren aurkako eraso indiskriminatuak aztertzeko ere.

**Tejiendo redes por la convivencia sin violencia contra las mujeres en los pueblos indígenas del Cauca** prozesuan (Caucako herri indigenetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizikidetzaren aldeko sareak ehunduz), aurrera



egin zen emakumeen formakuntzarako plana sortzen eta ezartzen, gaitasun pedagogikoak sortzeko eta testuinguru indigenetan eta Guardia eskolan eskubideak sustatzeari buruzko ezagutzak sendotzeko. Intzidentzia-ekintzek eztabaidan jarri zuten emakumeen eskubideak herrien bizi-planeko gai gisa onartzeko beharra; hala, XVI. Eskualde Biltzarrean adostu zen CRICeko egituretan emakumeek % 50eko ordezkaritza izan behar zutela. Bestalde, CRICeko Emakumeak eta Giza Eskubideak programaren behatokiek eragin handia izan dute komunitateetan, eskubideen urraketa ikusarazteko ez ezik, lurraldeetan gartu beharko diren prebentzio- eta politika-planak sortzeko ere.



‘Derechos Humanos y Vida en armonía y cuidado de las semillas de vida’ proiektuak (Giza Eskubideak eta Bizitza harmonian eta bizi-haziak zainduz), Guardia indigenaren tokiko egituren diagnostikorako, plangintzarako eta ekintza estrategikorako gaitasuna indartzen jarraitu da. Bestalde, adingabeen nahitaezko errekrutamentuaren aurkako prebentzio-kanpainak abian jarri diren lurraldeetan, haurren aurkako indarkeriak ikusarazten jarraitu dute. Hori indartu egin da Caucako 10 eremutan hazien, adingabeen eta agintari indigenen bizitza babesteko premia- zko Ekintza Humanitarioaren proposamenarekin.

## CXHAB WALA KIWE - CAUCA IPARRALDEKO KABILDO INDIGENEN ELKARTEA

Cauca iparraldean indarkeria gogortzen ari den honetan, herri indigenen eskubideen erabilera indartzeko proposamen bat jarri da abian, Giza Eskubideetan eta Nazioarteko Zuzenbide Huma-

nitarioan dituen eraginak monitorizatuz eta arrisku-egoeran dauden liderrei lagunduz. Proiektu honen beste ildoetako bat haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako Prestakuntza Eskolak indartzea da, aisialdia aprobetxatzeko eta komunitate-dinamiketan parte hartzeko, emakumeak eskubideen subjektu gisa onartzeko, eta gorpuz defendatzeko bizitza babesteko lehen lurralde gisa. Baita mehatxupear eta/edo arriskuan dauden indigenak babestea ere, adingabeei eta Kiwe Thegnei (lurraldearen defendatzaileei) arre- ta berezia eskainiz.

## NIKARAGUA

Nikaragua krisi politiko, sozial eta ekonomiko sakonean murgilduta dago duela 5 urte baino gehiagotik, eta emakumeak dira kolektibo kal- tetuenetako bat. Aurten ehunka erakunde lege- kanpo utzi dira, tartean, erakunde feministak eta/ edo emakumeak. Horrek eragin zuzena izan du emakumeen bizitzan, herrialdeko indarkeria ma- txisten aurka borrokatzeko prozesu pertsonal eta kolektiboetan laguntzeko espazio seguruak itxi baititu.

Bestalde, pertsonalitate juridikoa mantentzen duten erakundeak gobernuaren etengabeko kontrolpean aritu behar izan dira.

## AXAYACATL

Egungo testuinguruan, bereziki garrantzitsua izan da indarkeriatik bizirik atera diren emaku- meen autolaguntza-taldea mantentzea; izan ere, entzuteko, laguntza psikosozialerako eta akordio- rako gune kolektiboa izateaz gain, autodefentsa feministako tresnak ere eskuratu dituzte bertan. Era berean, kazetariekin prestakuntza-guneak





mantendu dituzte, emakumeen errealitatea kontuan hartzen duten informazio- eta komunikazio-ereduen aldeko apustua indartzeko.

Krisi ekonomikoaren esparruan, ekintzailetza-programa bat jarri dute abian. Bertan, Masayako 3 komunitatetan nekazaritza eta abeltzaintzako ekimenak eraikitzeke prozesu bat eta emakumeak igeltserotza-lanetan trebatzeko beste bat garatu dira. Azken horrek, genero-rol tradizionalak zalantzan jartzearekin batera emakumeei lan-hobi berriak irekitzeko aukera emateaz gain, autonomia eman die beren etxebizitzak hobetzeko lanetan. Eskuratutako ezagutzak praktikan jartze horretan, nabarmentzekoa da kolektiboki eraiki dutela parte hartzaile baten etxebizitza. Ahalduntze-prozesu bat izan da emakumeentzako, eta eragin handia izan du komunitatearen iruditerian.

## XOCHILT ACATL

2022a ura giza eskubide gisa defendatzeko lanak markatuta egon da, bai generoaren eta bai komunitatearen ikuspegitik.

Alde batetik, Uraren Eskola garatu da, uraren kudeaketa komunitarioa gidatzeko tokiko gaitasunak sustatzeko helburuarekin. Antolakunde komunitarioetako kide diren erraztaileak prestatu dira eta dagoeneko ari dira beren ezagutzak komunitateetara eramaten, uraren kulturari, kudeaketan eta erabileran dauden genero arrakalak ikusaraziz.

Bestalde, artikulazio komunitarioa abiatu da bi mikroarro hidrografiko babesteko. Mikroarroen

parte diren komunitateek diagnostikoak egin dituzte haren sarbidean eta kontrolean gizarte- eta ingurumen-baliabideen egoera eta genero-izendapenak ezagutzeko. Sinecapa ibaiaren mikroarroak badu erkidegoarteko hitzarmen bat, eta horri esker, birsortzeko ekintzak abian jarri ahal izan dira.

Azkenik, komunitate bati edateko uraren hornidura iraunkorra bermatu zaio, erkidegoko ur-sistema bat eraikiz eta abian jarritz. Era berean, modu paritarioan osatutako egitura komunitario batek kudeatu eta kontrolatuko du.



## EL SALVADOR

### LAS DIGNAS

